

## ARDI ETA TXO

Txo nire ahizpa txikia da. Adin berdintsua dugu; gure amak dio aurrena ni jaio nintzela eta gero, “beee” esan baino lehen, Txo belar gainean zela, zutik, bere lau hankatxoan gainean, bere ingurumarian berri zuen guztiari so eta adi.

Txo eta biok baserri batean bizi gara familiarekin. Jakin behar duzue gu oso familia handia garela: artzain jauna, artzain andrea, bi artzain neskatila eta artzain mutila ditugu. A! Eta artzain-txakur beltza, beste bat txuria eta hirugarrena, gaztain kolorekoa dena. Txo eta biok oso desberdinak gara: bere ilea kizkurra da eta beltza; nerea, aldiz, leun-leuna eta txuria. Txok ez dauka beste senideen antzarik eta artzainak, serio-serio, baieztatzeko bezala buruari gora-behera eraginez zera esan ohi du: “Txo, ardi beltza dugu”. Ez dakit zergatik dion halakorik, horrek ezer txarrik balu bezala...

Gaur goiz oheratu gara. Txo eta biok gure lasto-ohean etzanda geundela ahizpari zera esan diot:

—Ezin dut lorik hartu. Biharkoa dela-eta urduri nago.

—Ardiak zenbatu... —Txoren aholkua da.

—Ar... Kume... Bil... Dots... Axuri... Txo... —kantari aletzen ditut nire lagun eta nire ahizparen izenak, baserri sarrerako hesian gainetik salto egiten irudikatzen ditudan bitartean.

—Shhhh!!! Issssilean, orain ni naiz lorik hartu ezin duena! —errieta egin dit Txok, eta orduan, zaratarik ez egiteko nire buruan lagunak oin-puntetan ibiltzen ikusten ditut. Begiak itxi eta gehiagorik gogoratzen ez dudanez, lo hartu dudala uste dut.

Gaur eskolako lehen eguna dugu. Gure gelara aldamenetako baserrietako ahari, ardi eta bildotsak bertaratu dira. Denok korrika sartu gara gelara, denok ziztu bizian, elkarrekin kateatuta, hodei handi bat bagina bezala, baina hara!, hodeiaren erdi-erdian orban beltza dago, hots, Txo, nire ahizpa.

—Kaixo! Ni Txo naiz eta hau nire ahizpa da, Ardi —biok aurkeztu gaitu Txok gelakideen aitzinean.

—Ni Merina andrea naiz. Gaur oso gauza interesagarriak ikasiko ditugu —dio andereñoak gu guztioi adore emanaz.

Larre, sasi, lahar... Merina andereñoak belar mota ezberdin piloa erakusten digu, batzuk onak, besteak txarrik, are baita pozointsu direnak ere... Hara! Eta nik uste nuen kolore berdeko edozer gauza jan nezakeela! Txo leihotik begira dabil, antza, irakasgaiari kasorik egin gabe, batere.

—Txooo, Txooo! Zeri egiten diozo so? Erne! Belarrak hemen daude-eta! Pozointsurik ba ote dagoen antzeman ez eta nahasten baldin bazara... eta jaten baldin baduzu... eta gero albaiteoarengana eramaten bazaituzte... —esaten diot nik ahizpa nagusiaren ahotsa jarriz.

—Ezetz ba! Oso erraza da: hau pagotxa da eta hau baia pozointsua —esan dit apatxaz landare mota bakoitza erakutsiz. Hara! Ba antza denez adi egon da klasean nire ahizpa, bai; zeinen azkarra den nire ahizpa, ala?

—Nik ikasi nahi dudana han dago —esaten du Txok hasperen eginez, kanpora begira, artaldeko maisuarekin ariketak egiten ari diren txakurrei so.

Biologia eskolaren ondoren Geografia dagokigu, Latxa jaun irakaslearekin. Latxa jaunak aurrena mapa erakutsi digu, ibilbidearen nondik norakoak ikus ditzagun. Adi dagoen bakarra Txo da, gela osoan azkarrena dena, gainontzeko guztiak, bildots tentelak garenez, gure artean eztabaidan ari gara, oraindik ere larrearen eta bestelako belar eta landareen arteko ñabardurak bereizten ez ditugulako.

—Isiiiiiltasunaaaaa! Beeee gutxiago eta aaadiago aardiak! —eskatzen du irakasleak.

Eta orduan mendi-praktikak hasi dira. Latxa jauna artaldearen buru doa, Txo ahizparekin hitz egiten; Txo, adi-adi, ardi onak bezala, “beee”-rik esan gabe, eta gu, atzetik, ardi lerdoak bezala. Bat-batean, Ar, Kume, Bil, Dots, Axuri eta ni tupust gelditu gara, errekan hosto handi bat pirika ikusi dugulako. Zeinen azkar jaisten den eta nola egiten duen igeri harrien artean! Eta hostoa gure begietatik desagertzen denerako Txok, Latxa jaunak eta artaldeko gainontzekoek ere begibistatik aldegin digute. Orduan jabetu gara gu ere mendi mugagabeeee honetan galdu izanaz.

—Txooooooo! Txooooo! —garraisi egin dut beeeehin eta beeeerriz.

Eta inork ez duenez erantzun zer egin jakin gabe geratu gara eta bururatu zaigun gauza bakarra izan da hostoak jatea... Eta gure buruaren bueltan azpian geneuzkan hosto guztiak jan eta gero...

—Ardiiii! Ardiiii! —nire ahizparen ahotsa entzun dut, oihartzuna legez, gero eta hurbilago, orain hurbilago, hain hurbil non nire ondoan ikusi baitut halako batean. —Aurkitu zaituztet! —esan digu Txok, eta sei ardiek bakar batek bezala salto egin dugu. Hau sustoa hau hartu duguna!

—Txo! Begira zein belar gozagarriak dauzkagun hemen! —esan diot zirrarez beterik.

—Ardi! Utzi behingoz jateari! Latxa jaunak baserrira bueltan eramateko mandatua eman dit. Badator gaua. Ar, Kume, Bil, Dots, Axuri, zatozte hona! —Txok beste ardiei ahakar egin die gugandik urruntzen ari zirela, pinpilinpauxa baten atzetik zihoazen eta, noski, berriro galtzeko zorian...

Martxan jarri gara azkenik. Txok, lurrera begira, “atzer bere urratsetara itzuliko dela” dio; ez dakit zer esan nahi duen horrek baina ziur nago garrantzi handiko gauza dela. Txok ez ditu, ordea, bere urratsak aurkitzen, ez ditu ikusten, ez urratsik ezta beste ezer ere, gauak ez baitu ilargi betearen bonbillatxoa piztu, lainotuta dago eta dena ilun, eta ia ezin da bidearen norakoa antzeman, ia ezin dut Txo ikusi ere egin, esan dudana bezala oso ile beltza du-eta, gaua bezain ilun, hain zuzen ere. Kume negarrez hasi da, Axurik “noiz helduko gara?” galdetzen du behin eta berriz eta ni, ni ahizparen ile kizkurren atzean ezkututzen naiz. Orduan, Txo gelditu egin da, irrifartsu, badakielako zer egin behar duen. Esan dizuet Txo oso azkarra dela, ezta?

—Gogoan duzue gaur eskolan azaldu digutena? Goroldioarena? —galdetu digu Txok.

—Nik ez, nik lo hartu dut tartetxo batean... une batean besterik ez, e? —aitortu dut denen aurrean.

—Bai, beegira: goroldioa iparraldera begira jaiotzen da beti, iparraldeko hezeak lagunduta hazi egiten baita. Neskak! Goroldioa aurkitzen baldin badugu etxerako bidea aurkituko dugu ere! —argitu du, zirarraz, Txok.

Denek tentel aurpegiz egin diogu so. Ez dugu tutik ere ulertu. Baina Txok badaki zertaz ari den, eta hori da garrantzitsuena.

—Eta nola diozu dela “godolrio” hori? —galdetu du Axurik bere buruarekin bizkor plantak eginez besteen arreta erakartzeko; baina jakizue gu beeeezain tentela dela, e!

—Oso berdea, leuna eta bustirik egon ohi da. Bilatu zuhaitzetako enborretan —azaldu digu Txok.

Eta hor, ilunpean, denak enborrak ukitzen hasi gara; ia guztiak azal zakarrekoak dira, baina, bat-batean, zerbait leun nabaritu dut, ez bustirik ordea, eta horretantxe ari nintzela ahots zakar batek astindu nau:

—Kendu hanka gainetik! Ni ez naizela goroldioa! —garraixi egin dit Kumek, kopeta-ileko kizkurak txukuntzen. Antza denez, goroldioa zelakoan aztarrikatu dudanean orrazkera desegin diot. Kume oso ardi poxpolina da.

—Hemeeeen! Hemeeeen! Beeeegira, neskak! Goroldio pilo bat dago hemeeeen! —Txok aurkitu du zuhaitz batean zein bestean, han zegoen hainbatean, bilatzen genuen altxorra (tira, goroldioa).

Gu Txoren atzetik goaz, ia ez dugu goroldioa dagoen lekurik ikusten, baina Txok goroldioa aurkitu duela esaten baldin badu nik sinistu egiten diot, nire ahizpa delako, are gehiago, oso azkarra delako gure Txo. Eta goroldioz jantzitako zuhaitz sorta bat han-hemenka jarraian ukitu ondoren, azkenik, etxera heldu gara. Latxa jauna baserrian dugu zain eta Txo zoriondu egiten du artaldea osorik eta onik ekartzeagatik. Irakasleak gure aita eta amari zerbait xuxurlatu ondoren, ahizpari zera esan dio:

—Txo, bihartik aurrera ikasgela berezira joango zarela erabaki dugu —hasi da irakaslea...

—Baaaaiiii...? —beeeegiak zabal-zabal ireeekita galdetu du Txok.

—Bai, Txo, artzain-txakurren gelara joango zara. Gaur erakutsi diguzu oso artzain-ardi ona izan zaitezkeela —epaitu du Latxa jaunak.

Eta irakasleak azaldu digu ez direla artzain txakurrak artaldeak zaintzen dituzten bakarrak; badaudela ardi batzuk, azkarrak, txakurrei laguntza ematen. Batzuetan ardiek ez diote txakurrek agindutakoari jaramonik egiten, txakurrak agintzaile harroputz samarrak direlako eta gauzak zaunka esaten dituztelako beti. Hau gertatzen denean artzain-ardia nagusi bihurtu behar da, ardi horrek gauzak leeeeeun eskatzen baititu eta artaldeko ardi bat denez, gainontzeko ardiek pozik erantzuten diote eta, bide batez, artzaina ere kontentu dago.

Gaur Txok lehen eguna du ikastetxe berrian. Merina andereñoaren gelako leihotik so egin diot eta nire ahizpa ikusi dut, txakurrez inguratuta; oraingoan berak ikasiko du artzain izaten, artzain-ardia, hain zuzen ere. Zeinen azkarra den nire ahizpa, eta handia ere bai! Ez dakit zergatik esaten zuen beti gure artzainak txarra zela ardi beltza izatea. Ardi beltza ez da edozer gauza... gauza handia da!!!